

10-12 URTE: HELDUEN ALFABETATZEA

leZ proiektua: "Ateak irekitzen dituzten hitzak"

1. Justifikazioa

Proiektu honek helduen alfabetatzeari heltzen dio, emantzipazio sozialerako eta oinarrizko eskubiderako tresna gisa, analfabetismoaren egiturazko kausak aztertzen dituen eta baliabide inklusiboak sustatzen dituen Itaka Escolapioseko programekin konektatuz. Bertan, analfabetismoa eta hizkuntzaren ezjakintasuna landuko dituzte, Itaka Escolapios-en hizkuntza ikasteko programak ezagutuz.

2. Helburuak

Ikaskuntza-helburuak:

- Alfabetatzea oinarrizko eskubide eta gizarteratzeko tresna gisa ulertzea
- Hezkuntza-baliabideak sortzeko gaitasun digital aurreratuak garatzea
- Kultura- eta hizkuntza-beharretara egokitutako hezkuntza-materialak diseinatzea
- Helduen analfabetismoaren arrazoiei buruz kritikoki hausnartzea

Zerbitzu-helburuak:

- Alfabetatze programetarako baliabide praktikoak sortzea (piktogramak, oinarrizko hiztegia)
- Munduko ipuinen liburutegi digitala garatzea
- Etengabeko hezkuntzaren garrantziaz sentsibilizatzea

3. Jakintza-eremuak eta-arloak

- **Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza**
- **Gaztelania eta Literatura**
- **Arte Hezkuntza**
- **Matematika** (alfabetatze-estatistikak)

4. LOMLOE kompetentzia espezifikoak eta arloekiko lotura

Arloa	LOMLOE kompetentzia espezifikoa
Ingurunearen ezagutza	CE. CM.2 "Natura-, gizarte- eta kultura-inguruneko elementuen edo sistemen ezaugarriak identifikatzea, haien antolamendua eta propietateak aztertzea eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa aitortzeko, ondare hori kontserbatzeko, hobetzeko eta erabilera arduratsurako ekintzei ekiteko"
Gaztelania	CE. LCL.5 "Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, hautatutako diskurtso-generoaren berezko konbentzioei jarraiki, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-eskaera zehatzei modu informatu, eraginkor eta sortzailean erantzuteko"
Arte Hezkuntza	CE. EA.3 "Ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adieraztea eta komunikatzea, soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta bitarteko digitalen aukerekin esperimentatuz, norberaren lanak sortzeko"
Matematika	CE. M.6 "Kontzeptu, prozedura eta argudio matematikoak banaka eta taldeka komunikatzea, ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia edo grafikoa erabiliz, terminologia matematiko egokia erabiliz, ideia matematikoei esanahia eta koherentzia emateko"

5. Oinarrizko jakintza (LOMLOE 3.Zikloa)

- **Ingurunearen ezagutza:** Gizarteak eta lurraldeak. Inguruko datuak biltzeko metodoak. Tresna eta gailu egokiak
- **Hizkuntza:** Idatzizko ekoizpena: plangintza, testualizazioa, berrikuspena eta edizioa hainbat euskarritan. Zuzenketa gramatikala eta ortografikoa. Aberastasun lexikoa
- **Arte Hezkuntza:** Teknikak, materialak eta baliabide informatiko eta teknologikoak: ekoizpen plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak sortu, manipulatu eta zabaltzeko aplikazioa
- **Matematika:** Egoera problematikoak bistaratzea, arrazoitzea eta modelizatzea tresna teknologikoekin

6. Sekuentziazio didaktikoa (15 saio)

Astea	Saioak	Jarduera nagusia	Landutako LOMLOE konpetentziak	Azken produktua	Ebaluazioa
1	1-3	"Alfabetatzearen errealitatea ikertzen" - Helduen analfabetismoaren datuen, kausen eta ondorioen analisisa	CE. CM.2 "Natura-, gizarte- eta kultura- ingurunekeo elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea, haien antolamendua eta propietateak aztertuz eta haien arteko harremanak ezarriz, kultura- eta natura-ondarearen balioa azpimarratuz. Hau kontserbatzeko, hobetzeko eta erabilera arduratsua lortzeko ekintzak abian jartzeko"	Multimedia ikerketa-txostena, estatistikekin eta testigantzekin	Ikerketa eta iturrien erabilera kritikorako errubrika
2	4-6	"Piktograma inklusiboak diseinatzen" - Piktograma unibertsalen sistema sortzea espazio publikoetan orientatzeko	CE.EA.3 "Ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adieraztea eta komunikatzea, soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta bitarteko digitalen aukerekin esperimuntatuz, norberaren lanak sortzeko"	Piktogramen eskuliburua, erabilera- eta aplikazio-gidarekin	Erabiltzaileen funtzionaltasunaren eta feedbackaren ebaluazioa

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

3	7-9	"Oinarrizko hiztegi eleaniztuna" - Oinarrizko itzulpenekin gaztelaniazko ikusizko hiztegia egitea	CE.LCL.5 "Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, hautatutako diskurtso-generoaren berezko konbentzioei jarraiki, ezagutza eraikitze eta komunikazio-eskaera zehatzei modu informatu, eraginkor eta sortzailean erantzuteko"	Hiztegi ilustratu fisiko eta digitala gaztelaniaz edo euskaraz	Hizkuntza-sorkuntza eta egokitzapeneko prozesuaren portfolioa
4	10-12	"Munduko ipuinen liburutegi digitala" – Genially-rekin ipuin interaktiboekin bildu, egokitu eta sortzea	CE. EA.3 + CE. LCL.5 (integratua)	Genially plataforma, alfabetatzen ari diren helduentzat egokitutako 20 ipuinekin	Gaitasun digitalaren ebaluazioa eta baliabidearen hezkuntza-kalitatea
5	13-15	"Testeoa eta baliabideen aurkezpena" - Benetako erabiltzaileekin probatzea, azken zuzenketak eta aurkezpen komunitarioa	Oinarrizko kompetentzia guztien zeharkako integrazioa	Testatutako eta banatzeko prest dauden azken baliabideak + zabalkunde ekitaldia	Gizarte-inpaktuaren autoebaluazioa eta jarraitutasunarekiko konpromisoa

7. Jarduera osagarriak (ordu 1 bakoitza)

Hiru jarduera alternatibo proposatzen ditugu, baina saioetan aurkitzen diren proposamen batzuk ere erabil daitezke, guztiak hiru saio inguruko proposamen txikiak baitira.

A jarduera: "Kulturartekotasuna opari gisa"

- Dekalogo ilustratu bat sortzea kultura eta jatorri desberdinetako pertsonekin bizitzearen abantailei buruz.

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

B jarduera: "Boluntario bati elkarrizketa"

- Alfabetatze programetan lan egiten duen boluntarioen batekin topaketa, erronkak eta indarguneak ezagutzeko.

C jarduera: "Eraldatzen duten ipuinak"

- Gurea ez den beste hizkuntza batean komunikatzen diren helduentzako ipuin tradizionalak egokitzea, hiztegi erraz eta oinarrizko gramatika-egiturekin.

8. Jarduera nagusien garapen zehatza

1-3 SAIOAK: "Alfabetatzearen errealitatea ikertzen"

Iraupena guztira: 135 minutu (45 minutuko 3 saio)

Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:

- UNESCOk eta erakunde ofizialek analfabetismoari buruz eta bertako hizkuntza hitz egiten ez duen herrialdeko biztanleriari buruz egokitutako estatistikak biltzea.
- Bertara iristean herrialdeko hizkuntza ikasi zuten pertsonen testigantzak bideoan prestatzea.
- Educaren webgunean dagoen proiektuaren fitxa prestatzea eta, beharrezkoa bada, egokitzea.
- Itaka Eskolapioen alfabetatze-programei buruzko informazio espezifikoak lortzea
- Ikerketa txantiloiak sortzea galdera gidariekin
- Mapamundi bat prestatzea analfabetismo-indize handiagoak dituzten herrialdeak aurkitzeko
- Infografiak sortzeko materiala antolatzea: kartoi meheak, errotuladoreak, erregelak

Saioaren aurkezpen sarrera (10 minutu):

"Imajina ezazue une batez ez dakizuela besteen hizkuntza berean irakurtzen edo idazten. Nolako izango litzateke zuen egunerokoa? Munduan milioika heldu ari dira egoera hori bizitzen oraintxe bertan. Hori zergatik gertatzen den eta Itaka Escolapios bezalako erakundeek nola laguntzen dieten ikertuko dugu. "

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

Garapena pausoz pauso:

1. SAIOA (45 minutu):

1. Hasierako sentsibilizazioa (15 minutu)

- Esperimentua: eguneroko lanak egiten saiatzea, "irakurtzen jakin gabe" (kartelak, botikak, mezuak interpretatzea)
- Talde-hausnarketa: "Zer zailtasun aurkitu dituzue? Nola sentitu zarete?"
- Kontzeptuak sartu: analfabetismoa, alfabetatze funtzionala, helduen hezkuntza
- Ideia zaparrada: "Zer estrategia erabil genitzake egoera hau hobetzeko?"

2. Lehen ikerketa datuekin (20 minutu)

- Grafiko errazetan egokitutako munduko estatistikak aurkeztu
- Mundu-mapan analfabetismo-indize handi eta txikiak dituzten herrialdeak aurkitzea
- Gizonen eta emakumeen arteko eta hiri- eta landa-eremuen arteko datuen konparaketa
- Patroiak identifikatzea: pobrezia, gatazkak, haurtzaroko eskola falta

3. Itaka-Escolapios (10 minutu)

- Erakundearen alfabetatze programei buruzko bideo laburra erakutsi
- Lanean ari diren herrialdeak mapan aurkitzea
- Metodologia azaltzea: alfabetatze funtzionala, benetako beharrei lotua

2. SAIOA (45 minutu):

1. Testigantza errealak (20 minutu)

- Itaka-escolapios-en ikasi izan zuten helduen 2-3 testigantza
- Analisi enpatikoa: "Zer sentimendu adierazten dituzte? Zer aldatu zen beraie bizitzan?"
- Motibazioak identifikatu: lana aurkitu, seme-alabei lagundu, autonomia pertsonala
- Hausnarketa: "Zer oztopo gainditu behar izan zituzten?"

2. Ikerketa taldeka (20 minutu)

- 4 ikerketa-taldetan banatu:
 - 1. taldea: Helduen analfabetismoaren kausak

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- 2. taldea: Analfabetismoaren ondorioak eguneroko bizitzan
- 3. taldea: Helduen alfabetatze metodoak
- 4. taldea: Alfabetatze lanetan lan egiten duten erakundeak (Itaka-escolapios barne)

- Talde bakoitzak ikerketa-plantilla betetzen du eskainitako iturriak erabiliz.

3. Lehen sintesia (5 minutu)

- Talde bakoitzak datu harrigarri bat partekatzen du
- Hurrengo saiorako aurkezpena planifikatzea

3. saioa (45 minutu):

1. Ikerketa-aurkezpenak (25 minutu)

- Talde bakoitzak bere aurkikuntzak 5 minututan aurkezten ditu
- Arbelean mapa kontzeptuak kolektiboa sortzea, lotura guztiekin
- Zikloak identifikatzea: pobrezia → hezkuntza falta → pobrezia handiagoa
- Erakundeen lana nabarmentzea

2. Multimedia txostena sortzea (15 minutu)

- Ikasle bakoitzak txosten orri bat sortzen du bere zatirik garrantzitsuenarekin
- Datu, grafiko errazak eta gogoeta pertsonalak barne hartu
- Orri guztiak txosten kolektibo batean batu
- Azala gehitu, izenburu harrigarria jarri eta ondorioak

3. Hausnarketa eta proiektzioa (5 minutu)

- "Nola lagun diezaiekegu guk alfabetatze prozesuan dauden pertsonei?"
- Programa hauetarako baliabide erabilgarriak sortzeko ideia sartzea
- Zerbait zehatza eta erabilgarria egiteko talde-konpromisoa

Beharrezko materialak:

- Munduko analfabetismoari buruzko estatistika egokituak
- Heldu alfabetatutakoen testigantzak bideoan
- Mapamundi handia

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

- Ikerketa-plantilak
- Infografiak sortzeko materiala
- Hautatutako eta egokitutako informazio-iturriak

Ebaluazioa:

- Ikerketaren kalitate-errubrika: iturrien erabilera, analisi kritikoa, sintesia
- Gizarte-arazoarekiko sentiberatasun-oharra
- Sortutako multimedia txostenaren ebaluazioa
- Ikerketa-prozesuaren portfolioa

4-6 SAIOAK: "Piktograma inklusiboak diseinatzen"

Iraupena guztira: 135 minutu (45 minutuko 3 saio)

Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:

- Dauden piktograma-sistemak ikertzea (ARASAAC, piktograma unibertsalak)
- Marrazketa teknikoko materiala prestatu: erregelak, konpasak, laukidun papera
- Diseinu errazeko softwarea (Canva, GIMP) edo tabletak lortu marrazki app-ak erabiltzeko
- Testeorako liburutegi publikoarekin edo tokiko alfabetatze zentroarekin harremanetan jarri
- Ondo eta gaizki diseinatutako piktogramen adibideak bildu

Saioaren aurkezpen sarrera (10 minutu):

"Piktogramak hitzik gabe hitz egiten duten marrazkiak dira. Irakurtzen ikasten ari diren pertsonentzat oso baliagarriak izan daitezke liburutegietan, osasun-zentroetan edo bulegoetan orientatzeko. Piktograma-sistema argia, erabilgarria eta polita diseinatuko dugu. "

Garapena pausoz pauso:

4. saioa (45 minutu):

1. **Dauden piktogramen analisia (15 minutu)**
 - Ikastetxearen, kalearen eta aireportuen piktogramak ikusi
 - Piktograma onen ezaugarriak identifikatzea: sinpletasuna, argitasuna, unibertsaltasuna

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

- Akats komunak aztertzea: zehaztasun gehiegi, kulturari dagokionez espezifikoa diren sinboloak
- Diseinu berrietarako irizpide zerrenda sortzea. Grafia gaztelaniaz (edo erabiltzen dugun hizkuntza) sartzen dugun erabakitzea.

2. **Beharren identifikazioa** (20 minutu)

- Ideia zaparrada: "Irakurtzen ez dakiten edo gure hizkuntza ez dakiten pertsonen zein lekutan behar dute orientazioa?"
- Espazioak lehenetsi: liburutegia, osasun zentroa, udaletxea, garraio publikoa
- Espazio bakoitzerako, ekintzak edo leku zehatzak zerrendatu: "komuna", "informazioa", "irteera", "isiltasuna"
- 15-20 kontzeptu garrantzitsuenak aukeratu eta diseinatu

3. **Lehen zirriborroak** (10 minutu)

- Ikasle bakoitzak 3-4 kontzeptu aukeratzen ditu diseinatzeko
- Paperezko zirriborro azkarrak egin, kontzeptu bakoitzaren bertsio ugari eginez
- Ideia bera irudikatzeko modu ezberdinetan pentsatu

5. SAIOA (45 minutu):

1. **Diseinuak zehaztu eta aukeratu** (25 minutu)

- Ikasle bakoitzak bere zirriborrorik onenak hobetzen ditu
- Diseinu-printzipioak aplikatzea: gehienez 3 elementu piktograma bakoitzeko, lerro argiak, proportzio orekatuak
- Bertsio digitalak sortzea tresna errazak erabiliz
- Zuri-beltzean eta tamaina txikian funtzionatzen dutela ziurtatu

2. **Ikaskideen arteko berrikuspena** (15 minutu)

- Ebaluaziorako diseinuen trukea
- "Asmakizunen jolasa": piktograma erakustea eta beste batzuek esanahia asmatzea
- Jasotako feedbackean oinarritutako zuzenketak egin
- Diseinu hoberenak aukeratu

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

3. **Eskuliburuaren plangintza** (5 minutu)

- Eskuliburuaren egitura erabaki: azala, aurkibidea, piktogramak kategorien arabera, erabilera gida...
- Hurrengo saiorako ardurak eta eginbeharrak esleitu
- Planifikatu benetako erabiltzaileen testeoak

6. SAIOA (45 minutu):

1. **Eskuliburu osoa sortzea** (30 minutu)

- Piktogramak antolatu kategorian arabera: Leku publikoak, Ekintzak, Orientazioa, Larrialdiak
- Piktograma bakoitzak izango ditu:
 - Gaztelaniazko hitza
 - Itzulpena 2-3 hizkuntza arruntetan (arabiera, errumaniera, txinera)
 - Gomendatutako erabilera-testuingurua
- Azal profesionala eta jarraibideen orriak sortu

2. **Lehen testea** (10 minutu)

- Ikastetxeko helduekin piktogramak probatu (irakasleak, atezainak, familiak)
- Iradokizunak eta akatsak erregistratu
- Feedbackean oinarritutako azken zuzenketak egin

3. **Eskuliburuaren aurkezpena** (5 minutu)

- Ikasle bakoitzak bere piktograma gogokoenak aurkezten ditu
- Hausnarketa: "Nola lagun diezaieke gure eskuliburuak alfabetatze-lanetan ari diren pertsoneri?"
- Tokiko liburutegi eta alfabetatze-zentroen banaketa planifikatzea

Beharrezko materialak:

- Marrazketa teknikoko materiala
- Diseinu errazeko tresna digitaletarako sarbidea
- Analisirako piktogramen adibideak
- Prototipoetarako inprimaketa-materiala

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- Eskuliburua antolatzeko txantiloiak

Ebaluazioa:

- Diseinuaren kalitateko errubrika: argitasuna, sinpletasuna, funtzionaltasuna
- Erabiltzaileekiko testean oinarritutako erabilgarritasun-ebaluazioa
- Feedback-ean oinarritutako fintze-prozesuaren behaketa
- Azken eskuliburuaren ebaluazioa: antolaketa, osotasuna, erabilgarritasuna

7-9 SAIOAK: "Oinarrizko hiztegi eleanitza"

Iraupena guztira: 135 minutu (45 minutuko 3 saio)

Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:

- Alfabetatze-prozesuan dauden pertsonentzako 200 hitz erabilgarrienak identifikatu
- Inguruan hizkuntza komunak hitz egiten dituzten kolaboratzaileak lortu (arabiera, errumaniera, txinera, etab.)
- Hiztegi-orriko txantiloia prestatu hitzak irudiak eta itzulpenak idazteko espazioekin
- Ilustrazio eta argazkigintza materiala antolatu
- Online hiztegietarako eta itzulpen-tresnetarako sarbidea prestatu
- Tokiko alfabetatze programarekin harremanetan jarri, behar espezifikoak identifikatzeko

Saioaren aurkezpen sarrera (10 minutu):

"Pertsona heldu batek ikasten dituen lehen hitzak bere egunerokotasunerako beharrezkoenak izaten dira: lana, etxea, osasuna, familia. Hiztegi berezi bat sortuko dugu hitzik erabilgarrienekin, marrazki argiekin eta hainbat hizkuntzataraz itzulita."

Garapena pausoz pauso:

7. SAIOA (45 minutu):

1. Hitz gakoaren hautaketa (20 minutu)

- Kategorien arabera antolatutako oinarrizko 200 hitzen zerrenda aurkeztea:
 - Familia eta pertsonak (10 hitz): ama, semea, senarra, laguna...
 - Etxea eta objektuak (15 hitz): etxea, atea, mahaia, bazkaria...

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

- Lana eta dirua (10 hitz): lana, dirua, zuzendaria, soldata...
 - Osasuna eta gorputza (15 hitz): medikua, mina, medikuntza, ospitalea...
 - Denbora eta zenbakiak (10 hitz): gaur, bihar, bat, hamar...
 - Ikasle bakoitzak 50 hitzen alde bozkatuko du
 - 50 hitz bozkatuenak aukeratu hiztegian sartzeko
- 2. Itzulpenen ikerketa (20 minutu)**
- Ikastetxean dauden hizkuntza kantitatea erabiliko dugu taldeak egiteko
 - Talde bakoitzak 10-12 hitzen itzulpenak ikertzen ditu bere hizkuntzara
 - Hiztegiak online erabili, senideekin edo ezagunekin kontsultatu
 - Hainbat iturritako itzulpenak egiaztatzea, zehaztasuna ziurtatzeko
- 3. Orrien diseinua (5 minutu)**
- Orrialde formatua erabaki: hitza euskaraz (handiz), irudi ilustratiboa, itzulpenak (3-4 hizkuntzetan)
 - Erantzukizunak esleitu: ikasle bakoitza 2-3 hitz osoren erantzule izango da

8. SAIOA (45 minutu):

- 1. Ilustrazioen sorkuntza (30 minutu)**
- Ikasle bakoitzak ilustrazio argiak sortzen ditu esleitutako hitzetarako
 - Irizpideak: marrazki erraza, unibertsalki ulergarria, kultura aldetik espezifikoa diren elementurik gabe
 - Kontzeptu abstraktuetarako (maitasuna, lana), sinbolo edo eszena sinpleak erabili
 - Fotokopian ondo funtzionatuko duten zuri-beltzeko bertsioak sortzea
- 2. Itzulpenak egiaztatzea (10 minutu)**
- Gertu ditugun hiztunekin itzulpenak berrikustea (famiak, irakasleak, bizilagunak)
 - Akatsak zuzentzea
 - Itzulpenek hiztegirik oinarritukoena eta komunena erabiltzen dutela ziurtatzea
- 3. Orrien maketazioa (5 minutu)**
- Ikasle bakoitzak bere orriak antolatzen ditu, aurretik erabakitako formatuan
 - Irakurgarritasuna zaindu: letra handia, espazio argiak, orden logikoa

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

- Gaztelaniazko eta beste hizkuntza batzuetako ortografia berrikustea

9. SAIOA (45 minutu):

1. **Hiztegia**(25 minutu)

- Orriak gaika antolatu
- Aurkibide alfabetikoa sortzea bilaketak errazteko
- Azal erakargarria diseinatu: "Oinarrizko Hiztegi Eleanitza – Gaztelania (edo euskara) Ikasteko Lehen Laguntza"
- Argibideen orrialdea sartu: hiztegia nola erabili, erabilitako sinboloak

2. **Bertsio digitala** (15 minutu)

- Orri guztiak eskaneatu edo argazkiak atera
- Deskargatzeko PDF bertsioa sortu
- Artxiboak antolatu, erraz banatzeko
- Sarbide azkarrerako QR kodeak sortzea kontuan hartu

3. **Erabiltzaileekin testea** (5 minutu)

- Probatu ikastetxeko helduekin
- Argitasunari eta erabilgarritasunari buruzko iradokizunak erregistratu
- Alfabetatze programen banaketa planifikatu

Beharrezko materialak:

- Hautatutako oinarrizko hiztegiaren zerrenda
- Ilustrazio-materiala
- Itzultzaile eta hiztegietarako sarbidea
- Hizkuntza ezberdinez hitz egiten duten laguntzaileak
- Maketaziorako eta enkoaternaziorako materiala
- Digitalizaziorako Scanner edo kamera

Ebaluazioa:

- Ilustrazioen kalitatearen ebaluazioa: argitasuna, unibertsaltasuna
- Itzulpenen zehaztasuna egiaztatu

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

- Azken produktuaren erabilgarritasun-errubrika
- Benetako erabiltzaileen feedback-a testean

10-12 SAIOAK: "Munduko ipuinen liburutegi digitala"

Iraupena guztira: 135 minutu (45 minutuko 3 saio)

Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:

- Genially kontua sortu eta tresnarekin ohitu
- Kultura ezberdinetako 20 ipuin labur aukeratu
- Ipuinen oinarritzko hiztegiara egokitu (gehienez 300 hitz)
- Geniallyrako sarbidea duten ordenagailuak/ tabletak prestatu
- Ipuinak ilustratzeko libreak diren irudiak lortu
- Hizkuntza-irakasleekin koordinatu testu egokituak berrikusteko

Saioaren aurkezpen sarrera (10 minutu):

"Ipuinak ez dira haurrentzat bakarrik. Irakurtzen edo hizkuntza berri bat ikasten ari diren helduek ere istorio polit eta errazekin gozaten dute. Liburutegi digital interaktibo bat sortuko dugu, mundu osoko ipuinekin, hizkuntza berri bat irakurtzen edo ulertzen hasi diren pertsonentzat egokituak. "

Garapena pausoz pauso:

10. SAIOA (45 minutu):

- 1. Ipuinen aukeraketa eta azterketa (20 minutu)**
 - 20 ipuin tradizional laburren aukeraketa
 - Irakurri 3-4 adibide oinarritzko hiztegiara egokituz
 - Egokitzapen-irizpideak: esaldi laburrak, hiztegi arrunta, egitura sinplea
 - Ikasle bakoitzak ipuin bat aukeratzen du erabat egokitzeko
- 2. Egokitzapen-prozesua (20 minutu)**
 - Aukeratutako ipuinaren jatorrizko bertsioa irakurri
 - Hiztegi zaila identifikatzea eta sinonimo sinpleagoak jarri
 - Gramatika-egitura konplexuak sinplifikatu
 - Jatorrizko ipuinaren esentzia eta mezua mantendu

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

- Muga: gehienez 300 hitz ipuin bakoitzeko

3. **Lehen berrikuspena** (5 minutu)

- Egokitzapena ozen irakurri, egokitasuna egiaztatzeko
- Jatorrizkoaren zentzua eta emozioa mantentzen dituela egiaztatu
- Hurrengo saioan kontsultatzeko zalantzak idatzi

11. SAIOA (45 minutu):

1. **Geniallyko tutoriala** (15 minutu)

- Genially plataformarako oinarritzko sarrera
- Funtsezko funtzioak ikastea: testua, irudiak, animazio errazak gehitzea
- Ipuinetarako txantilo egokiak aztertu
- Oinarritzko orri interaktiboak sortu

2. **Ipuin digitalen sorrera** (25 minutu)

- Ikasle bakoitzak bere ipuina sortzen du Geniallyn:
 - Izenburua duen azala, jatorrizko egilea eta adaptazioaren sortzailea
 - 4-6 orrialde testu egokituarekin eta ilustrazioekin
 - Elementu interaktiboak: aurrera egiteko botoiak, animazioak
 - Azken orria, ipuinari buruzko hausnarketa edo galderekin

3. **Berrikuspen teknikoa** (5 minutu)

- Elementu interaktiboaren funtzionamendua egiaztatu
- Pantaila-tamaina desberdinetan irakurgarritasuna egiaztatu
- Oinarritzko arazo teknikoak ebatzi

12. SAIOA (45 minutu):

1. **Banakako ipuinen amaiera** (20 minutu)

- Ipuin bakoitzaren diseinua eta funtzionamendua hobetu
- Audio aukera erantsi: irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako ipuinaren narrazioa grabatzea
- Zailak izan daitezkeen hitzetarako hiztegi interaktiboa sartu

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

2. **Liburutegi digitalaren sorrera** (20 minutu)

- Genially sortzea, ipuin guztien aurkibide gisa balioko duena
- Munduko eskualdeka antolatzea: Afrika, Asia, Europa, Amerika, Ozeania
- Ipuin bakoitza munduko mapa interaktibotik klik batekin eskuragarri
- Komentarioak gehitu: zailtasun-maila, irakurketaren iraupena, gaia...

3. **Testeoa eta aurkezpena** (5 minutu)

- Liburutegiko nabigazio osoa probatu
- Ipuin bakoitzaren aurkezpen azkarra (30 segundo ikasleko)
- Hausnarketa: "Nola lagun diezaieke gure liburutegiak alfabetatze-lanetan ari diren pertsoneri?"

Beharrezko materialak:

- Internet duten ordenagailu/ tabletetarako sarbidea
- Genially kontua (dohakoa)
- Ipuin tradizionalen aukeraketa
- Libreak diren irudi multzoa
- Audio aukera grabatzeko mikrofonoa

Ebaluazioa:

- Testuak egokitzeko errubrika: sinplifikatu, zentzurik galdu gabe
- Gaitasun digitalaren ebaluazioa: Geniallyren erabilera zuzena
- Azken produktuaren kalitatea: funtzionaltasuna, diseinua, hezkuntzarako onura
- Ikaskideen ebaluazioa: ikasle bakoitzak lankide baten ipuina ebaluatzen du

13-15 SAIOAK: "Testeoa eta baliabideen aurkezpena"

Iraupena guztira: 135 minutu (45 minutuko 3 saio)

Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:

- Testeo-saiorako tokiko alfabetatze-programarekin harremanetan jartzea
- Garraioa koordinatzea, beharrezkoa bada alfabetatze-zentroa bisitatzeko

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

- Erabiltzaileentzako ebaluazio errazeko formularioak prestatzea
- Aurkezpen publikorako espazioa antolatu (ekitaldi-aretoa, gela nagusia)
- Familiak, irakasleak eta Itaka escolapios-eko ordezkariak gonbidatu
- Ikasle bakoitzarentzako diplomak prestatu

Saioaren aurkezpen sarrera (10 minutu):

" Unerik garrantzitsuena iritsi da: sortu ditugun baliabideak pertsonekin probatuko ditugu. Zuen iritziek esango digute benetan baliagarriak diren. Ondoren, gure lana ikastetxe osoarekin partekatuko dugu. "

Garapena pausoz pauso:

13. SAIOA (45 minutu) - Testeoa benetako erabiltzaileekin:

1. Testa egiteko prestakuntza (10 minutu)

- Testeoa helburuak berrikustea: Erabilgarriak al dira? argiak al dira? Zerbait falta da?
- Materialak prestatu: piktogramak, hiztegia, tabletak Geniallyrekin
- Taldetan banatu: sortutako baliabideetako baten ardura dutenak
- Erabiltzaileei galderak egitea: "Ulertzen erraza al da? Erabiliko al zenukete? Zer aldatuko zenukete?"

2. Testeoa saioa alfabetatze zentroan (30 minutu)

- Alfabetatze prozesuan dauden helduei baliabideak aurkeztea
- Baliabide bakoitzarekin nola eragiten duten ikusi
- Feedback zuzena eta espontanea jaso
- Hobekuntzarako iradokizun espezifikoak idaztzi
- Une esanguratsuak argazkiekin (baimenarekin) dokumentatzea

3. Azken hausnarketa (5 minutu)

- Baliabideak jasotzeari buruzko hasierako inpresioak
- Egin beharreko premiazko zuzenketak identifikatzea
- Hobekuntzak planifikatzea, aurkezpena baino lehen implementatzeko

14. SAIOA (45 minutu) - Azken egokitzapenak:

1. Jasotako feedbackaren analisisa (15 minutu)

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

- Jasotako iradokizun guztiak biltzea
- Aldaketak lehenestea: kritikoak, garrantzitsuak
- Dugun denborarekin zuzendu daitezkeen hobekuntzak baloratu

2. **Hobekuntzak ezartzea** (25 minutu)

- Nahasmena eragin zuten piktogramak aldatu
- Hiztegia hitzak gehitu
- Ipuin digitalak jasotako iradokizunen arabera zuzendu
- Liburutegi digitalaren alderdi teknikoak hobetu

3. **Aurkezpena prestatzea** (5 minutu)

- Ikasle bakoitzak 2 minutuko aurkezpena prestatzen du proiektuaren zatiari buruz
- Proiektuaren eragin sozialaren azalpena entseatzea
- Azken produktuak antolatu erakusketarako

Saioa 15 (45 minutu) - Aurkezpen ekitaldia:

1. **Ongietorria eta testuingurua** (10 minutu)

- Gonbidatuen harrera: familiak, irakasleak, erakundeetako ordezkariak
- Proiektuaren aurkezpen orokorra: helburuak, prozesua, ikaskuntzak
- Helduen analfabetismoaren arazoaren testuingurua

2. **Produktuen aurkezpena** (25 minutu)

- Piktograma inklusiboen eskuliburua: erabileraren frogapen praktikoa
- Oinarrizko hiztegi eleanitza: orrien adibideak eta erabilgarritasuna
- Ipuinen liburutegi digitala: zuzeneko nabigazioa Geniallyn
- Testearen testigantzak benetako erabiltzaileekin
- Inpaktuaren erakusketa: "Nola lagun dezakete baliabide hauek?"

3. **Etorkizuneko ezagutza eta proiektzioa** (10 minutu)

- Diplomak ematea "Inklusiorako tresnen sortzaileak"
- Baliabideak toki-erakundeei banatzeko konpromisoa
- Jarraipen plangintza: Nola eman jarraipena proiektuari?

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

- Azken hausnarketa: "Nola hazi gara pertsona eta herritar gisa?"
- Gordetzeko talde argazkia

Beharrezko materialak:

- Alfabetatze-zentrora bisita egiteko garraioa
- Azken formatuan sortutako baliabide guztiak
- Erabiltzaileentzako ebaluazio-inprimakiak
- Jendaurrean aurkezteko materiala
- Diploma pertsonalizatuak
- Aurkezteko ikus-entzunezko taldea

Ebaluazioa:

- Behaketa, benetako erabiltzaileekin testak egiten diren bitartean
- Feedbacka onartu eta egokitzeko gaitasunaren ebaluazioa
- Aurkezpen publikorako errubrika: argitasuna, eragina, gizarte-konpromisoa
- Autoebaluazioa: "Zer ikasi dugu alfabetatzeari eta gure erantzukizun sozialari buruz?"
- Inpaktuaren neurketa: sortutako baliabideak hartzen dituzten erakundeen kopurua